



Bi emakumei sexu-erasoa egin die gizonezko batek Tolosaldean

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 29/01/2024

Osteopatia kontsulta bateko tratamendu saioetan egin zien eraso emakumei

Urtarrilean zehar, Tolosaldeko osteopatia kontsulta batean, ukituak eta sexu askatasunaren aurkako jokabideak jasan dituztela ziurtatu dute bi emakume. Bi kasuetan, gizonak saioa hasten zuen gorputzeko zenbait eremutan, hala nola bizkarrean, lepoan edo gerrialdean, baina handik denbora batera, biktimen baimenik gabe, terapeutak eremu intimoetara zabaltzen zuen masajea. Erasorearen unean gizonezkoa eta biktima bakarrik zeuden kontsultan eta, horren ondorioz, emakumeak beldurtu egin ziren saioaren zehar, hauek adierazi dutenez. Gizona atxilotua izan zen atzo.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/bi-emakumeri-sexu-erasoa-egin